

bidegileak



**Enrike Zubiri *Manezaundi* (1868-1943)**

Egilea:

**ROSA MIREN PAGOLA**

## *Luzaide, Iparraldera begira*

uzaide Euskal Herriko iparraldea denik, luzaidearrek esango luketen bezala, ez da ukatzen ahal. Hala ere, Iparraldea eta Hegoaldea bereiztera makurtu eta ohitu garenez gero, Iparraldera begira dagoen Nafarroako herria dela esan dezakegu, izan ere horrela baita, baina, agian, arrazoizkoagoa litzateke Luzaidetik eta Arnegitik, bien artean, Iparraldea eta Hegoaldea lotzen dituztela esatea. Luzaide ez dago Iruñetik urrun, 64 kilometrotara, hain zuzen, baina Arnegi, Donibane-Garazi eta, oro har, Nafarroa Beherea hurbilago eta erosoago ditu ezen ez Iruñea

edo Hegoaldeko edozein herri handisko. Luzaide euskal Piriniotan dago kokatua, eta historian, literaturan eta Donejakue-bidean hain entzute handikoa izan eta, oraino ere, den Orreagarako, Nafarroan sartzean, lehen herria eta bakarra da. Luzaide beraren erdarazko «Valcarlos» izenak ere aspaldiko borrokaren eta galtzaileen zantzo izugarrien eta garaileen irrintzien oihartzunak dakarzki-



Enrike Zubiri Gortari *Manezaundi* (1868-1943)

gu historiako lanbroen artetik. Hegoalderako bide hori egiteko, Ibañetako mendatea igo behar da eta haren kaskoa gainditu, eta geografia-eragozpen hau ez da txikiena izan Luzaideren Iparralderako joera indartzeko. Beraz, ez da harritzekoa Luzaidetik, nahiz hizkeraz, nahiz ohiturez, dantzez, bestez eta giza harremanez, lotura gotorragoa Iparraldearekin izan badu mendez mende ia egun arte.

Luzaide Ibañetaren iparraldeko egiaren barrenean dago. Ibañetak 1.057 metro ditu eta Luzaide 350 metrotan dago, mendi eta mendishez inguratutik. Mendi horietan –As-

tobizkar, Txangoa eta Menditxipi batik bat gertatzen da uren banaketa: Atlantikora horien iparrera jotzen dutenak eta Mediterraneora besteak. Iparralderat doazen errekastotxoek Luzaide ibaia sortzen dute, eta horren alboan kokatzen da Luzaide herria, basoz eta belardiz beti berde eta beti heze, baserriak eta auzoak han-hemenka sakabanatuak, noranahi begiratuta ere paisaiarik politen eta ibilgarrienak ageri direlarik. Honatx, besteak beste, zerk azaltzen dituen Enrike Zubiri pintorearen eta «Manezaundi» euskaltzalearen Luzaidetako atxikimendua eta maitemina.



Luzaide, Iparraldera begira dagoen Nafarroako herria (Zubiriren koadroa)




Luzaideko Santiago elizan izan zen bataiatua  
(Zubiriren koadroa)

## Nor zen Enrike Zubiri

Ez da erraza Enrike Zubiriren bizitzako zehaztasunak biltzea. Gure artean bizi izan zen; ez da hainbeste denbora hil zela; ezagutu ahal izan zuten zenbait ere bizi dira oraino: hala eta guziz ere, haren bizitzaren urrats nagusiak baizik ezagutzerik ez dugu. Enrike Zubirik, dirudienez, ez zuen azantza maite. Izan, hagitx ezaguna zen, irakasle, erretratugile ospetsu, idazle eta kritiko zen bati zegokion bezala. Baina berez serioa, gizon begiratu eta aski isila omen zen; ezkongabea izan zenez, bere oroigarriak gorde zitzakeen familiarik ere ez zuen izan; gerra zibilak ere haren paper eta idatziak desager zitezen eragin handia izan zuen; eta argitaratuetan ere bere buruaz ez da asko mintzo. Hala ere, utzi zuen obrara lotu beharra dago, hura baita emaitzarik baliotsu eta esanguratsuena egilea eta haren garaia ezagutu ahal izateko.



Enrike Zubiriren sortetxea



Jaiotza-liburuko E. Zubiriren erregistroa

## ***Haurtzaroa eta gaztaroa***

Enrike Zubiri Gortari 1868ko abuztuaren 31n jaio eta irailaren 2an bataiatua izan zen Luzaideko Santiago elizan, «Enrique Ramón» izena ezarri ziotelarik. Aita, Jose Joakin Zubiri, Bizkarretakoa zen eta, lanbidez, Luzaideko Udaleko Idazkaria zen; ama, Apolinaria Andresa Gortari, Artiedakoa zen. Bederatzi ume izan zituzten: horietarik bi, zaharrena eta gazteena, alabak, tarteko zazpiak gizonezkoak zirelarik. Enrike azken aurrekoa izan zen. Gazteena monja sartu omen zen. Aipagarria da baita ere Xabier Zubiri filosofo handia iloba izan zuela, Donostiara ezkondu zen Migel, anai-arrebetan bortzgarrena zenaren semea.

Enrikek biziki maite zuen bere herria. Aski gazterik atera behar izan zuen herritik Madrilen ikasketak egiteko, baina Luzaideko erroak ez zituen sekula galdu, alderantziz baidzik, adintsuago eta luzaidetarrago agertzen baitu bere burua. Urte goxo eta atseginak izan bide zituen haurtzarokoak, udaro, oporrak igarotzera, Luzaidera joatea baitzuen ilusiorik handiena: «Urthe guziz bezala ethorri niz aurthen ere sorthu nintzan xoko maitagarri huntarat, uda goxoki iragaiteko ene herritarren arthean, eta goizetik arratseraino mintzatzeko amaren altzoan ikhasi nuen elhe miresgarrian». Eta oporrak bukatzean ere begira nola irekitzen duen bihotza: «Zoin oroitzapen ezin ahantzizkoak gure egun iragarnetarik hain goxoki, han, gure sor-lekian,



Donibane-Garazirekin harreman handiak izan zituen

Luzaide maitian». Edozein aitzakia on zitzaion haurtzaroan igarotako gertakizunak eta ongi altxatuak zituen oroitzapen minak gogoratze-ko: Dominixe eiharazainaz mintzo denean, Mari-kantton goxoki saltzaileaz, kontrabandistez, ihauteriez edo zernahiz ari delarik.

Haurtzaro-gaztarotan, Luzaidez kanpo, harreman gehienak Nafarroa Beherekoekin izango zituen. Izan ere, urte haietan herriak ez zuen errepiderik, egun duena esan nahi baita, hau 1884. urtean, Enrikek hamabortz-hamasei urte beteak zituenean egin baitzen. Autobusak, berriz, 1920. urte inguruan hasi ziren Agoitzera bidea egiten, eta handik, noski, Iruñera. Bere hitzek azaltzen dute hobekien guk dioguna: «Oroitzen hiza, hi, Geaxan, gure gazterian Orriagako erregebidia etzelarik oraino egina nola bizi ginen hemen, gure

xokoan, gure lekhutze guziak Doniane alde-  
rat, eta nola etxeke eta soineko behar gini-  
tuen guziak Intxauspe-enian, edo lehen dei-  
tzen ginuen bezala, Xerbaxo-enian, erosten  
ginituelarik?».

Aro hauei buruz ez dago datu garbiegirik, baina aurreneko ikasketak bere herrian egin-  
go zituela pentsatu behar da, Luzaidek eskola  
baitzuen. Arnegira ere joanen zen ziurrenik  
frantsesaren hasi-masiak ikasteko, usatua  
baitzen hori neska-mutikoendako. Berak dio-  
enez, familia Donibane-Garazira pasatu zen  
aldi baterako eta han bospasei urtez bizi izan  
omen ziren. Hagitz ttikia izanen zen garai  
horretan eta ez zitzaion aparteko oroitzape-  
nik geldituko, haurtzaroko istorio guziak  
Luzaiden kokatzen baititu. Maiz aipatzen du  
Donibane-Garazi, baina helduaroko kontu-



Manezaundik hain egoki aipatzen dituen Luzaideko bolantak

tan. Gaztetxotako ikasketak, Luzaideko zenbaitek bezala, Donibane-Garaziko *Clairac* ikastetxean egin zituen. Edonola ere, Iparraldea, Nafarroa Beherea batez ere, oso bere zuen; adierazgarria da, esaterako, Bernat Etxepareri buruz idatzi zuena: «Arras gogotik mintzatzen niz gizon huntaz zeren eta ahan-txu ene herritarra delakotz».



1919. urtean, Zubirik San Ferminetako kartel honekin saria irabazi zuen


## **Ikasketak**

XIX mendearen azken laurden aldera, Nafarroako Aldundiak arreta berezia eskaintzen zien arte plastikoetan etorkizunik ageri zuten gazteei. Donibane-Garaziko ikasketak egin ondoren, pinturarako ageri zuen ezpal on eta zaletasunari jarraikiz, 18 urterekin, Iruñeko *Escuela de Artes y Oficios*-era zuzendu zen. Pintore ona izateko gaitasun nabarmena erakutsi zuen eskolan eta, marrazkiko irakaslea zen Eduardo Carceller García-ri esker, 1888. urtean, Nafarroako Aldundiko beka jaso zuen Madrileko Arte Ederren San Fernando Eskolan arte ikasketak burutzeko. Eskola honen akademizismoaz ez dago deus esan beharrik, gauza ezaguna eta aipatua baita. Zubiriren formazio artistikoa akademikotasun horrek markatuko zuen, bere alderdi on eta txarrekin. Agian ez zitzaion gaizki etorri Enrikeri, berez baitzuen marrazkirako esku ona eta, gero, oinarrizko irakaskuntzan emango zuelako bizitza osoa. Madrileko eskolan ere nabarmendu zen eta zenbait diploma lortu zituen.



*Larousse Entziklopedia* Zubiriren sinaduraz





Alfonso Gaztelu Iruñeko alkateari (1913-1916) eskainitako koadroa

## *Irakaslea*

Enrike, formazioa osatu ondoren, Iruñera itzuli zen. Garaiko beste zenbait artista, baita bere lagunetakoak ere, Parisera joan baziren ere, Enrike Zubiriz ez da horrelakorik inon aipatzen. Aiurriz, hiri handiak ez zituen gogoko, eta formazioz, ziurrenik, arte-korronte berriak ere ez zitzaizkion hain deigarri gertatuko. Iruñea, hiria izanik ere, txikia zen, lasaia, babesgarria, guziz egokia beretzat eta ongi zetorkiona bere nortasun bilduari. Beraz, Iruñean emango du bere denbora, eta ihardun oparoan, gainera; lan aunitz eta ugaria egingen du, batez ere irakasle-

tzan, baina pintore eta idazle bezala ere izen handia eta begiramena lortu zituen.

Ogibidez irakasle izan zela esan daiteke, 1895etik 1941 arte Iruñeko *Artes y Oficios* Eskolako irakaslea izan baitzen, marrazki eta pinturako katedraduna, hain zuzen. Estima handiko irakaslea izan zen eta XX. mendean Nafarroan izan diren zenbait pintore entzutsu haren ikasgelatik igaro ziren, haiengan eragin handia izan zuelarik irakasle eta laguntzaile bezala. Horien artean norbait aipatzekotan, *Briñol* bera edo lagun eta alderdi berean kide izan zuen Javier Ciga pintore handia aipa daitezke. Jubilatutako ondoren ere Eskolan jarraitu zuen irakasle bezala ia hil zen arte.

Gizon langilea zen eta eskola ematearekin ez zuen aski. Gaztetan ere argitaratu zituen marrazkiak aldizkarietan, esaterako hain ezaguna zen *La Ilustración*-en. Iruñean finkatu zenean, bertako aldizkari eta egunkarietan parte hartzen hasi zen, margolari bezala ez ezik, baita arte-kritiko bezala ere. Gizon objektiboa, formazio handikoa eta prestua izaki, Iruñean mundu artistikoaren erreferente bihurtu zen hein batean: arte-sarietako lehiaketak ala Diputazioak urtero eman ohi zituen arte plastikotarako beka eta laguntzak erabakitzeko epai-mahaikide izan ohi zen maiz. Nafarroako Diputazioarekin aditu gisa harreman estuak izan zituen oro har, eta eragin onik ere izan zuen Zubirik, gero margolari ospetsu egingo ziren Basiano, Crispin eta Briñolek, esaterako, hura epai-mahaiko zelarrik jaso baitzuten Madrilen, Parisen edo Erroman ikasketak egiteko beka. Alderdi honen ikuspegia amaitzeko, ez dezagun aipatu gabe utz Zubiri izan zela Nafarroako Museoan dagoen Goyaren koadro bikaina ediren zuena.

Arkitektura mundua ere ezagutzen zuen hein batean, Madrilen egin zituen ikasketetan arkitektura ere aztertzen baitzen arte ikuspegitik. Beraz, joan den mendearen lehen herenean, Iruñean Zabalgunek Berrria –egun «Lehen Zabalgunea» deitzen dena– eraiki beharra sortu zenean, hurbiletik eta interesaturik jarraitu zituen Iruñeak izan zuen aldaketa bortitzaren gorabeherak. Aditu bezala iritzia

ematen zuen nahiz bere kasa, nahiz eskatutako informeak eginez. Ez zen aurrerapenaren aurkakoa, alderantziz baizik, «berritu edo hil» esaten baitzuen, baina aipagarria da Nafarroako Aurrezki Kutxako zuzendari zen Bajo Ullibarri jaunarekin izan zuen eztabaida bizia Aurrezki Kutxaren egoitza berrirako aurre-egitasmoaren irizpide artistikoekin bat ez zetorrelako.

Euskaraz ere honela zioen: «Iruñeko auzo berria (Ensanche) ari da egin ahala hedatzen. Etxeak gero eta ederragoak erakitzen dituzte, bost, sei egoitzetakoak gehienak goitizale edo *ascensor* horiekin, karrika zabal eta nasaia, zolak ederki zimentatuak, eta bidekari ibil-tokiak ezin hobeki aphainduak».



Iruñeko arkitekto ospetsua zen Florencio Ansoleagaren erretratua (Zubirik egina)

## Emakumeekiko irizpidea

Enrike ez zen esposatu. Izan bide zuen andregai Luzaide inguruan edo, han ematen baitute horren berri zehaztasun gehiegirik gabe, baina heriotzak eraman omen zuen zoritxarrez andregai, eta horren ondorioz edo hark utzitako hutsunea beteko zuen beste emakumerik aurkitu ez zuelako edo nork jakin zergatik, kontua da beti bakarrik agertzen dela. Dena den, emakumeei buruz ez zuen iritzi jasoenik. Haren artikuluek ezin dute emakumeekiko duen ikuspegi mugatua ezkutatu. Alde batetik, idazten dituen solas, pasadizo eta istorioak gizasemeen ingurukoak dira bizpahiru izan ezik, eta horien ibilera alegerak

begitarte laxoz hartzen ditu, bizkitartean emaztea etxean delarik txintxo, erdi mozkorturik eta destenorez iritsiko den senar «gai-zoa» ongi hartzeko beti prest: «bere senharra ikustean ohean zabal-zabala, lo zurrunga ederranian, bere baitan dio: “Yinko huna! Izan ditekeen senharrik gisakuena eman daazu, Yauna”». Emakumei buruzkoak, berriz, hain gutxi izanik ere, eskatu gabeko garbiketekin hasi beharrean ikusten du bere burua: «Lerro hautan errain dutan emazteez ez nuke irakurleek uste dezaten guziak lerro edo herrunka berean ezartzen ditutala. Yinkuak beira nezala holako ustekeriaz... Baina badirela ere beste anitz eta anitz, arinak eta axola gabekoak,



Zubirik egindako andre honen erretratuak agertzen du Enrikeren gustua



Beste margolari batekin apunteak hartzen

oraiko moda lizuneri aiherrak direla, hori itsu ez direnek ez dute ukhatzen ahal»; «Ez dakit nork erraiten zuen holako emazteek gizonaren haizutasuna balute, zuhaitzetaratu behar ginukela hetaik ihes egiteko. Hitz gordinak, bainan ez direla egiatik urrun». Eta argitaratu zuen azken artikuluan, gerra sortu zen egunean hain justu, azken hitzak hauexek izan ziren: «Gizon zuhurrek erraiten dute emazte koska, ahuntza bezala kraixtu laburrez atxiki behar dela. Luze eta lazo uzten badakote, phendoitzari behera yuan litakeela».



## Nortasuna

Enrike Zubiri gizaseme txairoa, aurpegi argi-koa eta janzten dotorea zen; intelektual idurri-koa, hain zuzen; haren eiteak, nolabait ere, mailako gizasemea zela islatzen zuen; bestalde, sotil eta begiratu ere bai giza harremanetan eta bere portaera guzian: dotorezia ezarri omen zuen Iruñean. Barnerakoia omen zela? Agian, ez baitzen lagun askoko pertsona, baina ez zitzaion bere giro eta kulturako lagunik falta, eta zituenak betirako iraun zioten; ez zen parranda eta gehiegizko besten zalea ere, bake eta baretasun zalea baizik, baina asko maite zituen ohizko herrietako bestak eta jaialdiak. Herabea ere ba ote zen? Esan bezala, begiratu, bai, baina ez dirudi lotsatia zenik harremanetarako, gizartean agertzeko, idazteko, eztabaidetan parte hartzeko. Ez dut uste bi hitz horiek –«barnerakoi» eta «herabe»– hautenak direnik Zubiriren nortasuna bere sakonean azaltzeko.

Pertsona zuhur eta heziera handikoa izaki, ez zen inorekin tupustean konfiantzak hartu edo ematen hasiko. Bestalde, formazioz artista eta kritikoa zenez, baita irakasle estimatua ere, ez zuen gogoko bere artea plazara ateratzea beste kritikoen luma eta ahotan ibiltzeko moduan; nahiago zuen eskakizunen arabera

E. Zubiri gizaseme txairoa eta janzten dotorea zen

egin lanak. Zorrotza zen, hori bai, ziurrenez baita bere buruarekin ere, eta, beharbada, ez zuen hainbesteko segurtasunik izango berak egiten zuen artean, inork bezain ongi ezagutuko zituelako garai hartan arte plastikoak pairatzen ari ziren aldaketak. Horrek argituko luke zergatik ez zuen nahi izaten erakusketarik egin. Esanguratsua gerta daiteke Aita Donostiari esan ziona: «Aspaldidanik gogoratzen zait ene idazti hoberenekin liburuxka baten egitea, sari merke bathean saltzeko gisan. Irularrek ere hori bera erraiten daat: behar nukela liburuño batian bildu, sail pollitenak hautatuz. Bainan ez baitakit izain duen arrakastarik, ezniz ausarkatzen xahubide hortan sartzerat». Benetako arrazoia xahubidearena beharrean ez ote zen arrakastarena eta, batez ere, egin ziezaioketen kritikaren kezka, alde nabarmena baitago egunkarietako zutabeen agertzetik liburua sinatzera?

Sentibera ere badirudi, eta tolesgabea eta gizon zintzoa. Axularri buruz idatzi zuen artikuluan, Gero liburuak dituen Aitzin-solaseko euskarari buruzko hitzak ez zituen jaso eta hutsegite hori bere lagun handia zen Irularrek bete zuen, baina min eman zion Manezaundiri, eta ez zen isildu: «Nik ez dakit nola ez zitzaidan bururat yin holako hitz yoriak eta ezagutuak. Esku menean nintuan, alaa. Nik ere hautemaiten ditut, ba, zombait huts bertzeen idaztietan, bainan...». Eta bazekien bizitasunez erantzuten ere, baina begiramena eta gizalegea baztertu gabe sekula: «Ez dea gathua ere erroz-gora etzanik oldartzen bere azazkal zorrotzekin kitzikatzen dutelarik? Nik ere berdintsu egin dut zuen zimikoari, bainan samurtu gabe. Nere eskualkide onak, ulertu ahal dukekizue ere hitzak lañoki erran ditutala, herrarik gabe amultsuki, halako alegia puxka batekin bezala».

Bainan Axularrek anitz hitz erdaldun ibilkan ere, behialako idazleen arau, bethi izain da haren **Gero** miresgarria eskuara eskualdunki yakiteko aihapide ederrena eta aberatsena, gure hazkurri eta ikhasbide beharrena arbasoen eibe zaharra garbiki ikhas-teko, bere erroen eta mamian.

Bego Axular.

**MANEZAUNDI.**


Manezaundik Axular hagitz gogoko zuen

## Margolaria

Enrike Zubiriren bizitzako alderdirik propioena, joeraz eta lanbidez, margolaritzarena izan zen, eta hortik zetorkion batik bat Iruñean zuen izen ona eta entzutea. Ez zen pinturako bide berrietarik abiatu, baina marrazkirako esku bikaina zuenez, erretratugilerik preziatuena izan zen Iruñean bizpahiru hamarkadetan, eta garaiko pertsonaia aunitz erretratatu zituen. Ezaguna da 1893. urtean *Gamazadan* parte hartu zuten diputatu denei batera egin ziena eta gaur Nafarroako Aldundian estimurik handiengan gordetzen dena. Nafarroako historian gustukoen zituen pertsonaienak ere egin zituen: Erdi Aroan Nafarroako errege izan zen Carlos III., «el Noble» deituarena; Martin Azpilikueta, *Dr. Navarrus*-ena: «Nik egin nuen behin haren iduria (hori da nere lanpidea, irakurleak), goxoa baitzitzaitan eta ene neurri xumearen heinean ohoratzeko oritzapen horrekin gure gizon handia. Ze kharrarekin lothu nintzan lanari! Eta Diputazioak erosirik, han dago yauregiko gela batian nahi duenaren agerian».

E. ZUBIRI

Bere koadro batetik hartutako sinadura



E. Zubirik eginiko Alfonso Gazteluren erretratua

Pasadizo bezala kontagarri da nola, 1919. urtean, San Fermin jaietako kartel lehiaketa irabazi zuen. Egin zuen lana ona da, ez du deus esatekorik, baina ez zen denen gustukoa izan. Garaiko kritikoek estetizistegizat jo zuten, eta, egia esan nahi bada, ez zuten arrazoirik falta: ez dio kartel horien ohizko estiloari batera jarraitzen, ez eta Iruñeko bestetako espirituari ere erantzuten, motibo klasikoetatik eratu baitago erabat; bai, aldiz, egilearen formazio eta jaidurari, ez baitzen batera abarrots zalea.



Manezaundik *Gamazadaren* alde suhar idatzi zuten. Hona, parte hartu zuten diputatuei egin zien koadroa

Paisajista ere ona zen. Erretratua eta paisajea izan ziren haren pinturaren gai nagusi eta ia bakarrak. Marrazkilari ona zenez, horrek, erretratuetan ez ezik, haren paisajeen profil markatuen eta zehaztasunen nagusitasunean ere izan zuen eraginik, bere alderdi on eta, agian, bakoitzaren irizpideen arabera, kritikagarriekin ere, noski. Baina, onartu beharrekoa da margoen erabilera hagitz arteza duela, benetan atsegina eta XIX. mendeko neoklasikotasunaren kidekoa. Nafarroako iparraldeko hainbat toki pollit pintatu zituen: Luzaide, Erro, Irurita, Lesaka eta abarrekoak, beretzat guztiz hunkigarriak zirenak. Iruñeko *Cámara de Comptosko* atariarena ere, hau ere Dipu-

tazioan dagoena, benetan ederra da eta arrakasta handia izan zuena.

Esan bezala, ez zen erakusketa zale. Haren pinturak «Casa Arilla»-n eta Sarasate Etorbideko «Navasal» denda ezagunean egon ohi ziren ikusgai eta salgai, eta harrera ona izan ohi zuten. Edonola ere, 1943an –handik laster hilko zen bera–, «Casa Arilla»-n 30 paisaje erakutsi zituen. Geroztik egin da besteren bat, azkena 1987an Nafarroako Museoan. Hala ere, eta Zubiriren alderdi garrantzitsu hau burutzeko, agian ausartu egingo nintzateke iradokitzera haren lanek azterketa sakonago bat mereziko luketela eta, bide batez, baita katalogo osoagoa egitea ere.



Zubirik eginiko Iruñeko *Cámara de Comptos*en koadro honek arrakasta handia izan zuen



## Idazlea

nrike Zubiri gazterik hasia zen idazten, nonbait. Olerkiak ere paratu omen zizkion andregaiari, eta hori egin zuenak besterik ere idatziko zuen, eiki. Zoritarrez, Zubirik, beste aunitzek bezala Espainiako gerratean, idazkiak-eta erre egin omen zituen eta arriskutsu gerta zitekeen edozein aztarren desagerrarazi. Beraz, hura idazle bezala ezagutzeko ez dugu argitaratu zituen artikuluak baizik. Ez dira gutxi, gehiagoren irrika sortzen badute ere. Euskarazkoek ale lodiskoa osatzen dute, eta gaztelaniaz ere idatzi zuen. Beti egunkari eta aldizkarietan; libururik ez, ordea. Ez dirudi

erabat idaztera jartzeko pertsona zenik, baina gaiaren garrantziak bultzatzen bazuen, ez zuen eragozpenik izaten plazan agertzeko. Estilo arin eta bizikoa zen nahiz euskaraz nahiz gaztelaniaz, eta aldi berean zehatza ere bai.

Artikuluak ez zituen beti berdin sinatzen. Gaztelaniazkoak izen-deiturez, «Enrique Zubiri», gehienbat, inisial hutsez ere bai noiz-behinka; gutxi batzutan *Manezaundi* izengoitiaz; inoiz, «Enrique Zubiri (Manezaundi)» ere bai. Arte-kritikakoak eta Iruñeko lehenbiziko zabalguneko arazoei eta han jaso ziren erai-kuntza berriei buruzkoak dira, ikuspegi estetikoan idatziak bereziki, aldizka eztabaidetan ere

## NAFARROATIK

*Iruñe.* — Atseginekin irakhurtu dugu yuan den ilhabeteko asken egunetan bilkura bat izan dutela hemengo Roncal herrian Santa Graziko auzapezak bere konseillerrekin eta ingeniurrak ere.

*Valle de Roncal* deitzen den ibarrak baditu zazpi herri eta beren burua dute Roncal. Herri hortarik aspaldian egina da erregebidea Arrako deitzen den lehuraino, Zuberoko muga ondoan.

Ronkaltarren aspaldiko nahia da, Zuberotarrek egin dezaten erregebidea Santa-Grazitik mugaraino. Horren ondotik dabilte aspaldian eta Pauen gaindi ibili dira birpahiru aldiz, behin preterekin.

Azkenian konseillerek, gure adiskide Constantin-i esker, onhartu dute bide horren egitea eta hortakotzizian dute bilkura hori. Agian laster egin dezatela bide hori gure Chuberotar annieri eskua emateko eta hango herri politik eta lekhu ederrak ezagutzeko. Ala, emazie hor, Chuberotar-rak.

Eta guk noiz egingen dugu Aldudetako burdin bidia ? Berrogeitahamar urte hautan zombat aldiz ez da hortarik heroki mintzatu eta gero ichildu eta ihatzi ? Azkeneko egun hautan goberniak erran du, *d'erec* batian Iruñetik A duderako burdin bidia behar haundiko dela, *d'argente nécessité*, eta prest dela here laguntza emateko. Nik entzun dut Iruñeko y. un bati afera haund horetan arras sartua, hemengo Con e'l Generalak (Diputacion provincial) berak egin nahi duela burdin bide hori.

Alfonso XIII erregearen ametsa bethi izan da bide hori eta hemengo deputatuak hari hurbiltzen direlarik berehala hortarik mintzo da.

Planoak aspaldi eginak dituxte eta horietan ez dira Iruñetik mugaraino hogoi eta hamabost kilometra baizik eta hortik Baigorriat hamabost. Alta, badakitenek diote bidia aise egindaitakela, Iruñetik Aldudetako mendi apiraino, dena erreka sahetsetik goiti.

Hea azkenekotz ikhusten ahal dugun lehenbiziko lanen hastia.

MANECH HAUNDI.

sartzen zelarik. Beraz, behartuagoa zegoen izen-deiturez sinatzera. Ez zeukan, gainera, gordeka ibili beharrik, bere formazio eta lanbidearekiko izenarekin baitzuten zerikusia. Badira, ordea, garai bertsuari, artikulu batzuk, gaztelaniaz idatziak hauek ere, *Manech Thipi* izenpetuak. Enrikerenak direla oker ibiliko garen arrisku handirik gabe esan daiteke, izengoiti horrek ohizkoarekin ageri duen antzaz gain, gaiek eta aipamenek —euskaraz idazten zituen artikuluen idurikoak erabat—, eta estiloak berak ere, hori pentsatzera baikaramatzate.

Euskarazko artikuluek, berriz, ez zuten zerikusirik haren lanbidearekin, Euskal Herriarekiko maitasunarekin baizik. Zernahitaz idazten zuen, baina beste helburu batzuk zituen begien aurrean: euskara bizkortu eta Euskal Herria ezagutzera eman, militantea baitzen bere hizkuntza eta bere herriaren alde. Edukiak ere ez ziren haren jakintza-maiari zegozkionak, irakurle-motari egokituak baizik. Beraz, izen-deituren erabilera ez zen beharrezkoa artikulu horiek sinatzeko; bestalde, izengoitia erabili ohi zen maizenik euskaraz idazten ziren lanetan, batik bat aldizkari eta egunkarietan. Izengoiti bera erabili zuen beti, baina hasieran ez zuen erabat finkatua haren idazkera —*Manez Haundi, Manech Haundi, Manech Aundi*—, behin-betiko *Manezaundi* hartu zuen arte.

Zenbait artikulu *Manech Haundi* izengoitiarekin ere sinatu zituen

## ***Euskal idazle***

Esan bezala, euskarari zion maitasun eta atxikimenduak eraginik saiatzen zen euskaraz idazten. Ez, ordea, hizkuntzaren maitasun hutsez, hizkuntza herriaren zutabe nagusi bezala hartuz eta tinko eutsi eta indartu nahiz baizik: «Zerbait bada higiarazten nuela: bihotz xokoko su phindar bizia hunkitzen dualarik eskuararen amodioak. Ordian lehia khartsu batek beretzen nu eta bermatzen niz gogo eta bihotz osoekin ene eskuarako gosearen asezteko».

Euskarazko artikuluetan lehenbizikoa 1925. urtekoa da. Bizi izan zuen garaia ez zen egokiena izan euskaraz idazteko: Primo de Rivera-ren diktadura parean suertatu zitzaion eta harekin euskaraz idazteko debekua ere

bai. Horren ondoren, beraz, hirurogei urte eginak zituen askatasunean idatzi eta argitaratzeko aukera egokitu zitzaionerako. 1930. urteko ekainean honela zioen: «Denek dakigun bezala azkeneko sei zazpi urthetan debekatua ginuen ezpañetatik yalitzea gure aita amen mintzaira, gure sor elea, baina orai gobernuak lazoago uzten du uztaia eta poxi bat mintzaten ahal gira haizutasunarekin». Espainiako gerratea ere fite iritsi zen, eta hortxe amaitu zen guzia. Esan bezala, emaitza, urte apur horietan, ez zen hain xumea izan, baina garaia egokiago etorri izan balitzaio, oparoagoa gertatuko zen, noski. Iruñeko *La Voz de Navarra* eta Donostiako *El Día* egunkarietan eta Baionako *Eskualduna* astekarian idatzi zuen.

**La Voz de  Navarra**

Euskarazko artikuluen gehienak *La Voz de Navarra* egunkarian idatzi zituen

## Gaiak

Manezaundi aski ugaria zen gaietan: ipuinak, ohidurak, gertaldi eta pasadizoak, bestak, tokiak, Euskal Herriko historiako gaiak, Nafarroako pertsonaiak..., helburua beti garbi zuelarik, gai erakargarriak eskaini irakurleari: «Luma eskuan hartzen dutalarik [...] adimenduari galdegiten dakot argi nezan doi bat, irakurle maitearentzat zerbait idazteko, bainan eneatzan ez diten gisan; hots, zerbait azken lerroraino yarraik diten gostuan, mintzaldi solas goxo batean».



Pertsonaia historikoak gogoko zituen nola margotzeko nola haiez idazteko. Hemen, Carlos III.a Nafarroako erregea

Gertakizun eta ipuinen saila hogeit bat artikuluk osatzen dute. Gehienak Luzaide eta Donibane-Garazi inguruan kokatuak, pertsonaia xebrereren bat baliatuz edo gertaldi irri-garriak kontatuz. Berdin herriko jendearen solas eta ateraldiak ekarriz, Iruñeko Ortzirale Sainduko prozesioa ikustean ala San Fermin bestetan, esaterako.

Euskaldun ospetsuen atala, «Gure gizonak» izendatzen duena, adierazgarria da: «Gure gizon yakhintsu eta larrienez ere nahi dut zerbait erran laburzki»; ez guztiez, «gutisko ezagutuak direnetarik» hautatuz baizik: Martin Azpilikueta, Juan de Huarte, Bernat Detxepare, Axular, Aita Moret, Arthur Campi3n. Artikuluaren laburrean, haien bizitzako datu ugari ematen ditu, beti goresmenekoa, eta, hala badagokio, euskararen eta Euskal



Luzaide

Herriaren alde egindako lanak aipatuz. Begira, esaterako, nola hasten duen Campioni eskaintzen dizkion bietarik bat: «Ene goresmen haundienak xumeak litezke gizon hunek merexi dituen neurritat heltzeko. Nik ez dut uste egundaino Eskualherrian izan den gizon bat Kanpionen idurikoa, berrogoita hamar urtez lanian arizan denik gogo-bihotzak oso osoak ezarri dituenak yaidura suharrarekin eskuararen eta Eskualherriaren aldez». Martin Azpilikueta, *Doctor Navarrus* goitizenez ezagutua: «Eta ikhustekoa zen ze begitarte eskualduna zuen...! Buria adinak ukhurtua. Sudurra luzea eta eroria, begiak urdinak eta biziak, ttiptiak, baina phindardunak. Ahoa



Martin Azpilikuetaaren erretratua. Idatziz ere haren aurpegiaren deskripzio bizia egin zuen


mehia, ezpain xokoetan irriño doi batekin; kokotza meharra eta aitzinatua, sudurrari hurbildu nahia. Matel hezurak hertsia, buru-sahetsak zabalak, kopeta nasaia... Hea bade-netz eskualdun itxura egiazkorik». Aita Moretez honela dio: «Moretek ere yakinarazi dauku noraino hedatua zen eskuara haren denboran, Nafarroan. Hego aldeko mugako herri zonbait bakharrik mintzatzen ziren erderaz. Eta handik goitiago bertze herri parrasta bat erdara eta eskuara aldizkatuz mintzatzen zirenak. Beste guziak eskuara garbiz. Erran nahi baita, hego aldeko zonbait herriz kanpo, Nafartar guziak eskualdun hutsak zirela».

Politikaz zuzenean, artikuluska eta zeharkako aipamen batzuk izan ezik, deus gutti idatzi zuen, baina hitz horren esanahirik zabalenean har daitezke garaiko arazo biziaren inguruan eta Euskal Herriaren izateaz eta historiaz idatzitako zenbait artikulua. Abertzalea zen, bai, Eusko Alderdi Jeltzaleko kidea, eta sutua ere bai bere idatzietako zenbait esalditara lotuz gero, hagitz arduratzen baitzen urte artega haietan bizi izan ziren gertakizunez, eta jendea astindu eta mugiarazi nahi zuen: «Zerbait nahi balinbadugu ardietsi, behar dugu mendietarik hunaindiko eskualdunek elgartu. Bizkaia, Alaba, Gipuzkoa eta Nafarroa denak bat egin, eta lotuak egon lokharririk azkarrenean. Berexirik, deus eztugu ardietsiko. Elgertasunean eta batasunean da indarra». Estatutuaren alde ere agertu eta

ahalegindu zen: «Eskual herriko egun haundiena izan daiteke biharko bilkuratutik atheratzen balinbada guziek igurikatzen duguna, *Estatuto Vasco* delakoaren onhartzea, Nafarroako herri gehienengorik». Nolanahi ere, «Zer ginen eta zer giren» izenburupean Nafarroaren historiaz idatzi zuen artikulua multzotxo da aipagarriena.

Euskal Herriko landa, mendi eta, oro har, paisajeak –«aurkintzak» dio berak– biziki maitezituen eta usu ageri dira artikuluetan. Zorabiatzen da haien ikuskizunaz: «Oren erdi bat Iruñetik goiti yuanezkioz hasten zaizkigu ikhusmenak edertzen, mendiak oihantzen, etxeak zuritzen, koloreak bizitzen, garbitasuna agertzen. Begiak eta bihotza bozkariotzen zaizkigu». Pintorearen begiak ukaezinak dira: «Eta gero, zer kolore ederrak; mendi mazelatan iratziak gorrituak, gaztain ondoen mokotsak eta artho buruen kugulustak horituak; ardiak eta behiak gaintako alhapidetatik yautsirik phentziak bethetzen dituzte ttitta xuri eta gorrailez, loriatuak bazka goxoetan, beren xilintxa eta yuare ozenekin. [...] Gure azpian, alde batetik, erreka zola behearean, Banka eta Urepeleko bazterretxe xuriak, han hemenka hedatuak, bere hegats gorriekin. Beste aldetik, Aitzurreko auzoa, eta urrunago Undarlako bazterretxiak, Udiri, Peloina, Bernatenia, Ortxaix, Gallurru... Eta oraino urrunago, mendi urdin gaitz baten kaskoa. Astobizkar!». Azalpen behar gutxi dute hitz hauek.

Ez dago ehun eta hogeita hamarretik gorako artikulua multzoa laburbiltzerik. Gainera, gaiak, herri-minaren jario biziak igurzten dituenak. Herri eta baserri giroa idealizatuegia ageri duela? Agian, bai, baina egileari ezin zaio egitasunik ukatu. Berari ageri zaion bezala azaltzen du oro. Galdera, beraz, errealitatea aldatu egiten duela baderitzagu, ez da, ziurrenik, zergatik egiten duen hori, horrela zergatik ikusten duen baizik. Eta, beharbada, baita ere zergatik gertatzen zaigun, egungo euskal irakurleei, ikuspegi hori hain atsegina. Begi ongiez begiratzen ote zion bere herriari maitasunak eraginik? Beharbada, barne-minez gainezka egin dugu guziok aspalditxotik...; beharbada, gure herriaren arimari hortz eta atzapar eutsi nahi diogu... Beharbada.



A. Irigarayk Manezaundiren zenbait artikulua berrargitaratu zituen

## **Hiriaren gutxietsia eta baserriaren goresmena**

Horixe da Zubiriren ezaugarriarik nabarigarrienetakoa, mendebaleko literatur tradizioan ongi errotua dena, bestalde: hiriko bizimodua gutxietsi eta baserrikoa goratu. Ez da gai hori darabilen euskal idazle bakarra, batez ere bere garaikideen artean, baina ez da erraz aurkituko beste bat baserri giroko bizimodua, zuzenean ala zeharbidez, ohartuz ala oharkabe, hain maiz eta hain biziki jasoko duenik. Alta, Manezaundirengan ez da literatur jarra hutsa, barne-sentipena baizik: «Oraiko bazter guzietako nahaskeriak ikhusiz, hain nekea bizia izanik, bereziki hirietan langileentzat, ba othe da zerbait ederragokorik eta bakhettiar

nola gure menditarren bizitzea, bere etxaldeen yabe, lurgintzako lanak beren besoez eginak, etxetik kanpo nehoren laguntzak beharrik gabe». Ez dago zergatik nahasi bi alderdi horiek literatur ikuspegiz ari bagara, baina hau bestearen ondorioa baizik ez denean, ez da gaizki biak batera azaltzea. Begira nola dioen: «Ba othe da zorion ederragorik? Hiritik iges egiten luzaz, bazterturik, urrundurik gizonen nahaskeria, aiherkunde eta bekaitzkeria gohaindigarrietarik, han mendian bake ederraren erdian. Nik onhartzen dut yakintsu baten errana: gehiago ezagutzen dut gizona, gehiago urruntzen naiz bere ondotik. Mendian bederen ez ditugu aditzen heien kalapitak eta hasarreak, eta ez dute meskartzen gure barneko bakea».



Baserriko giroa hirikoa baino gogokoagoa zuen (Zubiriren koadroa)

## Hizkera eta estiloa

Artikulu askoren izenburuaren ondoren behe-nafarreraz idatzia dagoela esaten du, eta, izan ere, behe-nafarrera zen zerabilen euskalkia, Garazikoa hain zuzen. Herriko eus-kara bizian oinarritzen zen: «Nik idazten dutan eskuara herritarrena da, huts-hutsa»; «Barka nezazie, irakurle onak. Baxenabarrako eskuaraz idazti lerro hauk, bainan Eskualhe-rriko bertze mintzoetan trebe ez izanik bakotxak ez du emaiten ahal berak dakienatik kanpo». Baina ez uste harro ez zenik bere lurraldeko hizkeraz, «Benabarreko eskuara» artikuluan garbi ageri duen bezala.

Herrikoia, bai, baina ez haatik landu gabea eta, are guttiago, literaturtasunik gabea. Pertsona ikasia eta espiritu sentibera eta landukoa

zenez, berez ateratzen zaio literatur erre-kurtsoez baliatzea. Berak ere onartzen zuen hizkuntza literarioa erdiesten saiatzen zela. Herriaren solasean biltzen zituen hitzak eta joskerak –«horren mamia, itzuliak eta erroak ene herritarren arthean ikhasiak ditut»–, baina gero berak lerratzen eta metatzen ditu adjektiboak eta sinonimoak, berak bilatzen ditu irudi eraginkorrak eta itzulinguru eta forma adierazkorrak. Ez du, hala eta guziz ere, erraztasunik eta jariorik galtzen. Mintzaira malgua eta berezkotasun aire handikoa du. Zernahi esan nahi duela ere, beti lortzen du esamolde egoki eta axita, inoiz adierazpen-oztoporik aterako ez balitzaio bezala. Oso gogoko zuten irakurleek eta ez da harritze-koa, Manezaundi bete-beteko idazlea baita.



1990ean argitaratu zen Manezaundiren euskarazko artikulu guzien bilduma



## Azken urteak

Luzaidera udaro joaten zen bizpahiru hilabeterako: «Udako itzulia eginik, huna hemen berriz, zien artean solaskari eskualduna, luzesko urrundua egon ondoan». Espainiako gerra hasi zenean, beraz, han aurkitzen zen. Hain zuzen ere, 1936ko uztailaren 18an, gerra hasi zen egunean, Donostiako *El Día* egunkarian «Nahas-mahas» izenburuaz idatzi ohi zuten miszelanea gisako bat argitaratu zen: «Luzaide'ko sort leku goxorat yina (ethorria) niz uda phasatzerat ene herritarren arthian, Sanferminetako kalapita, harrabots haro eta oihuetarik ihes eginik». Eta Iruñetik idatzita-koetan ez bezala, «Luzaiden (Valcárlos), 1936'eko Uztailan)» zehaztuz ixten du artikulua. Gaixoak ez zekien ongi zer heldu zitzaion! Gainera, pertsona bezala ez ezik, abertzale bezala ere hagitz ezaguna zen. Arazoak izan zituen, ezinbertzez, eta bere burua Luzaiden

gorde beharrean ikusi zuen. Hantxe egon zen gerra bukatu zen arte.

Gerrate ondoan, arriskua pasatu ondoren, Iruñera itzuli zen. Ordurako adintsua zenez, ez dirudi berarekin sartu zirenik, baina uzkur asko igaroko zituen azken urteak, berak hainbeste maite eta defendatu zuen guzia bortizki jazarria eta erabat porroskatua ikusiz. Ez zitzaion, gainera, lagun askorik geldituko, Iruñean behintzat familiarik gabe eta adiskide minenak galduak ala ihes eginak. Oraino klaseren batzuk eman zituela dirudi, eta erakusketaren bat ere egin omen zioten. Nolanahi ere ez zuen luzaro iraun. Hainbeste beldurtzen zuten neguko hotz gogorrek –beti zen horren kexu– 1943ko abenduaren 20an eraman zuten.

Urte haiek ez ziren hautenak artista baten heriotzak oihartzun handirik izan zezan komunikabideetan, eta hagitzik gutxiago



Bere sortetxean Luzaideko udalak ezarritako plaka



Iruñeko kale batek bere izena darama

abertzalea izanik hura. Hala ere, Iruñeko gizartean ez ziren ahantziak haren gizatasuna, izen ona eta entzutea, San Nikolas eliza bete-bete egin baitzen haren hiletan. Iruñeko herriak hantxe egin zion, amultsuki, agur.

1979. urteko abuztuaren 27an, Iruñeko Udalak haren izena kale bati ezarri zion, *Pintor Zubiri* kalea, Iturrama auzunean, non dagoen garai bereko zenbait pintoreren kaleekin batera.



Ihauteriak

*Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka honen material grafikoa ondorengoei esker lortu du:*

- Rosa Miren Pagola
- La Gran Enciclopedia de Navarra
- Claudine Narbaitz
- S. Martin Cruz, Pintores Navarros I, CAMP, 1981

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: 1.a, 2003ko urria

Ale-kopurua: 2.500

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Joseba Olalde

Fotokonposizioa: Gráficas Varona, S.A.  
Polígono «El Montalvo», parcela 49 - Salamanca

Inprimaketa: Gráficas Varona, S.A.  
Polígono «El Montalvo», parcela 49 - Salamanca

ISBN: 84-457-2027-9 (Lan osoarena)  
84-457-2030-9

L.G.: S-\*\*\*-2003